



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko otsailaren 24a

24. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, Toki inbertsioetarako indarreko plana antolatu eta sustatzeko neurriei buruzkoa. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordeak onetsitako irizpena (2. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, programa-akordioeko neurrien kostu ekonomikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak planteatu dituen emergentzia sozialeko neurrien zergatiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, emergentziazko kontusailentara transferentziak egiteko baliatu diren kontusailei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, emergentzia sozialeko kontusailez baliatu diren eta baliatuko diren pertsoneri buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, jakitekoa ea 2015eko hasierako aurrekontuan emergentzia sozialeko kontusailik ba ote zegoen. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, gizarteratze-errentaren erreforma aztertze lantaldeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordea berritzeko hauteskundeetarako deialdia (16. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Toki inbertsioetarako indarreko plana antolatu eta sustatzeko neurriei buruzkoa.

LANDA GARAPENENKO, INGURUMENENKO ETA TOKI ADMINISTRAZIOKO BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 138.3 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Batzordeak onetsitako irizpena, Toki inbertsioetarako indarreko plana antolatu eta sustatzeko neurriei buruzko Foru Lege proiektuari buruzkoa. Proiektu hori 2016ko otsailaren 2ko 11. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2016ko otsailaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

IRIZPENA

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Batzordeak 2016ko otsailaren 23an egindako bileran onetsia.

Foru Lege proiektua, Toki inbertsioetarako indarreko plana antolatu eta sustatzeko neurriei buruzkoa

ZIOEN AZALPENA

1. Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 61. artikuluan aurreikusten denez, "Nafarroako Gobernuak, hartarako gaitasuna ematen dion foru lege baten esparruan, inbertsio planak ezarriko ditu, toki entitateekin lankidetzan aritzeko tresna gisa, Foru Komunitateko lurralde osoan nahitaezko udal zerbitzuak bermatzea helburu." Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 123.4 artikulua, berriz, honakoa xedatzen du: "Halaber, kapital transferentzietarako ezarritako zenbatekoaren banaketa inbertsio planak sortzen dituzten foru legeetan paratuko den moduan eginen da."

Urriaren 24ko 16/2008 Foru Legearen bidez 2009-2012 eperako Toki Azpiegituren Plana ezarri zen. Ondoren, ekainaren 17ko 13/2010 Foru Legea onetsi zen, Toki Inbertsioen Planaren Ohiz kanpoko Planari buruzkoa. Urtarrilaren 19ko 5/2009 Foru Dekretuaren bidez plan hori garatzeko arauak onetsi ziren.

Martxoaren 14ko 3/2012 Foru Legeak nabarmen aldatu zuen 16/2008 Foru Legea, eta aldi baterako luzatu zuen haren indarraldia, Toki Inbertsioen Plan berri bat onetsi arte.

2. Nolanahi ere, Toki Inbertsioen Plana arautuko duen legeria berria behar den bezala egiteko, beharrezkoa da Toki Inbertsioen Plan indardunean sartutako espedienteak arindu eta bultzatzea. Horretarako, bi jarduketa mota behar dira.

Lehenengo eta behin, Toki Inbertsioen Plan berria egin eta tramitatzen den bitartean presa aitortuko prozeduraren bidez eskaera berriak piltzen jarraitzea saihestu beharra dago. Bestela, luzatu den eta neurri batean egungo beharrekin bat ez datorren araudi bati jarraikiz konpromisoak hartzen segitzeak atzerapenak eragin ditzake plan berriaren aurreikuspenetan eta ezarpenean. Hala ere, bidezkoa da obra berriak larrialdiko prozedura erabiliz sartzeko bidea zabalik mantentzea. Obren hasierako baimena emateko prozedura ere bere horretan utziko da, hau da, ez du etorkizuneko planean sartzeko eskubiderik emanen.

Bigarrenik, neurri berariazkoak behar dira 2012az geroztik luzatuta dagoen Toki Inbertsioen Planaren babeseko espedienteak antolatu eta bultzatzeko. Gaur egun, plan horretan eragin zuzena dute hiru foru legeak, 16/2008, 13/2010 eta 3/2012 foru legeak alegia, bai eta arestian aipatutako 5/2009 Foru Dekretuaren 56 artikuluek ere. Arau sorta konplexua da, erabiltzen zaila, eta interpretatzeko orduan arazo ugari sortzen dituen. Horri erantzen badiogu, luzea izateaz gain,

zehaztu gabe uzten dituela garrantziko zenbait alderdi, tramitatzeko baldintzei eta epeei dagozkienak, ez da harrizkoa inbertsio proiektu askoren abiadura motelarazi izana, are geldiarazi ere; horrek, zenbaitetan, proiektu horien jarraipena arriskuan jarri du, eta oztopo larriak ezarri ditu etorkizuneko Planerako erabiltzen ahalko den aurrekontuaz zentzuzko aurreikuspenak egiteko.

Kudeaketa arazo horiei gehitu behar zaizkie aurrekontuen arloko egonkortasunari buruzko legeria berriaren ondorioak, bereziki Aurrekontuaren Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan jasotako xedapenek eta harekin lotutakoek eragindakoak.

Esandako guztiaren eraginez, urteak joan urteak etorri, xede honetarako kontu-sailen aurrekontu-gauzatzea ez da egokia izan. Eta horrek, azkenik, zerikusia izan du, ez nolana hiko, Nafarroako Aurrekontu Orokorretan duela zenbait urtetatik hona Toki Inbertsioen Planean erabili beharreko diru kopuruetan gertatu diren murrizketa zorroztzekin.

3. Lehenbailehen definitu, zehaztu edo argitu beharreko gai nagusiak, foru lege honetan mintzagai direnak, ondotik aipatzen dira.

Besteak beste, luzatutako egungo arauetan definitu gabe dauden edo irekiegiak diren zenbait epe zehazten dira.

Exekuzio proiektuetan eta/edo bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioaren egiaztapenetan akatsak zuzentzeko tramite eta epe batzuk ezarritzen dira.

Bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioari buruzko azterketak hasiera batean emaitza negatiboa izaten duen kasurako alternatiba batzuk planteatzen dira.

Obrak hasteko zentzuzko epeak aurreikusten dira, bai eta balizko salbuespenak ere, behar bezala frogatutako interes publikoko arrazoiak tartean direnean. Horiek zehaztean, kontuan hartu da Toki Inbertsioen egungo Planaren luzapenean presa aitortuko prozeduraren bidez sartutako inbertsioei lehentasuna eman zitzaiela hain larritzat jo ez ziren beste behar batzuen gainetik, aldeztatik definitutako irizpide tekniko batzuekin osatutako protokolo bati jarraikiz.

Obrak hasi eta amaitzeagatiko ordainketak jasotzeko eskaerak aurkezteko epeei eta betebeharrei dagokienez, aski izanen da obra aurreikusitako erabilera publikorako entregatu daitekeela ziurtatzen duen harrera-akta aurkeztea, enpresa kontratistaren adostasunik egon gabe ere.

Azkenik, akatsak zuzentzeko errekerimenduei osotara erantzuten ez zaienean, egindako obra edo obra zatiaren ikuskapena eginen dela aurreikusten da, aurreikusitako erabilera publikorako erabil ote daitekeen erabakitzeke. Baiezkoan, bidezkoa izanen da obraren jabeak eta zuzendariak (gutxienez) izenpetutako obra ziurtapenen bidez, bai eta fakturak edo kasuko kopuruak ordaindu izanaren ziurtagiriak aurkeztuz ere, frogatutako kostuaren zatiari dagokion ekarpen ekonomikoa ordaintzea.

Aipatutako azken bi neurriekin arrisku zehatz bati aurrea hartzen zaio, hain zuzen ere, obra egin duen enpresak, ados ez baldin badago harrerarako baldintzekin eta toki entitatearekin izenpetutako kontratuaren harrera eta likidazioarekin, agiri horietan bere adostasuna adierazteari uko egiteko tentazioa izan dezake, presio neurri gisa, desadostasunak konpontzeko legezt ezarritako bideetara jo beharrean.

4. Gainera, arlo honi buruzko erregulazioa argitu eta erraztu beharra dago, halako moduan non ez baita nahitaezkoa izanen lege eta erregelamendu mailako zenbait testu desberdin aldi berean erabili eta interpretatzea. Foru lege honen bidez, ukitutako toki entitate bakoitzak jakin dezake berehala zein den funtsean bere inbertsioaren egoera administratiboa.

Foru lege honen helburua da erantzun egokia ematea aipatutako gai guztiei.

1. artikulua. Foru legearen xedea.

Foru lege honen helburua da Toki Inbertsioen Planean sartuta dauden inbertsioak antolatu eta bultzatzea.

2. artikulua. Eskaera berriak onartzea.

1. Foru lege honek indarra hartu ondoren, ez da onartuko toki inbertsioen planean sartzeko eskaera berririk urriaren 24ko 16/2008 Foru Legearen 9.2 artikuluan eta harekin lotutako xedapenean jasotzen den presa aitortuko prozeduraz.

2. Foru lege honek indarra hartu ondoren, urriaren 24ko 16/2008 Foru Legearen 14. artikuluan xedatutakoaren arabera larrialdiko obratzat kalifikatutakoaren gaineko eskaerak onartuko dira.

3. Era berean, toki entitateek jarrai dezakete Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusian obrak hasteko baimenak eskatzen, toki inbertsioen etorkizuneko planetan noizbait ere sartu ahal izateko, urtarrilaren 19ko 5/2009 Foru Dekretuaren 49. artikuluan aurreikusitakoarekin bat.

3. artikulua. Espedienteen tramitazioa.

1. Toki Inbertsioen Planean sartutako inbertsioei buruzko espedienteak foru lege honetan xedatutakoaren arabera tramitatuko dira, eta berriaz aurreikusirik ez dagoen kasuan, urriaren 24ko 16/2008 Foru Legean eta hura garatzeko erregelamendua onetsi zuen urtarrilaren 19ko 5/2009 Foru Dekretuan aurreikusitakoarekin bat.

2. Inbertsioa presa aitortukoa dela deklaritzen duen ebazpena foru lege honek indarra hartu aurretik jakinarazi baldin bada, gehieneko diru ekarpena ezartzeko eskatzen den dokumentazioa hiru hilabeteko epean aurkeztu beharko da, jakinarazpena egin eta biharamunetik hasita.

Inbertsioa presa aitortukoa dela deklaritzen duen ebazpena foru lege honek indarra hartu ondoren jakinarazi baldin bada, gehieneko diru ekarpena ezartzeko eskatzen den dokumentazioa bi hilabeteko epean aurkeztu beharko da, jakinarazpena egin eta biharamunetik hasita.

3. Ez da inolako espedienterik tramitatuko toki entitateak uko egin badio eskatutako inbertsioari.

16/2008 Foru Legearen 17.1 artikuluko f) letran aipatzen den ukoa baliozkoa izateko, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 90. eta 91. artikuluetan aurreikusitako baldintzak bete beharko ditu.

4. artikulua. Zuzenketa.

1. Azken epe bat emanen da, hilabetekoa, foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera, 16/2008 Foru Legearen 16. artikuluan aurreikusitako exekuzio proiektuetan dauden akatsak zuzentzeko, kasuko obraren xedea betetzeko eska daitzkeen baldintza teknikoak biltzeko eragozpena direnean.

2. Era berean, hilabeteko azken epea ematen da, foru lege honek indarra hartzen duenetik hasita, 16/2008 Foru Legearen 16. artikuluan aurreikusitako plan ekonomiko-finantzarioak zuzendu edo eguneratzeko, Toki Administrazioari Zuzendaritza Nagusiko Kudeaketa eta Lankidetzako Zerbitzuak eguneratu gabe daudela edo akats teknikoak dituztela erabaki baldin badu toki entitateari jakinarazitako ekintza administratibo bidez, bai eta korporazioaren erabakiak zuzendu ere, foru lege horren 7. artikuluan jasotako finantzaketa konpromisoa barne.

Aurrekontu eta kontuei buruzko kontabilitateko espedienteak, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 202.5 eta 242.5 artikuluek eta aurrekontuen eta gastu

publikoaren arloan foru lege hori garatzen duen 270/1998 Foru Dekretuaren 84. artikulua aginduta bidali beharrekoak, aurkeztu ez dituzten toki entitate eskatzaileek aurkezteko azken epe bat izanen dute, hilabetekoa, foru lege honek indarra hartzen duenetik hasita.

3. Aurreko idatz-zatietan xedatutakoa aplikatuko da zuzentzeko errekerimenduak, eperik gabekoak, biltzen dituzten egintza administratiboak hartu dituzten toki entitateetan.

4. Aurreko idatz-zatietan aurreikusitakoa ez da aplikatuko zuzentzeko epe berriazkoak edo horien luzapenak jakinarazi direnean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 49.1 artikuluan xedatutakoarekin bat.

5. Akatsak zuzentzeko errekerimenduei behar bezalako erantzuna eman ezean, bidezkoa izanen da Toki Inbertsioen Planetik kanpo uzteko espediente tramitatzea, 16/2008 Foru Legearen 17.4 artikuluan xedatutakoarekin bat.

5. artikulua. Bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioa.

1. Toki Administrazioari Zuzendaritza Nagusiko Kudeaketa eta Lankidetzako Zerbitzuak ebaluatuko du inbertsioen bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioa.

Inbertsioaren bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioak ebaluazio negatiboa jasotzen badu, toki entitateak hilabeteko epea izanen du, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita, erabaki hauetako bat hartu eta Toki Administrazioari Zuzendaritza Nagusiari jakinarazteko:

a) Inbertsioa bere finantza ahalmenera egokitzekoa.

b) Finantzaketarako formula alternatibo bat proposatzekoa.

c) 16/2008 Foru Legearen 9.2, 12.3, 14, 16.3 eta 17.1 artikuluetan aipatzen den salbuespeneko araubidean sartzeko eskatzea.

2. Toki Administrazioari Zuzendaritza Nagusiko Kudeaketa eta Lankidetzako Zerbitzuaren iritziz toki entitateak proposatutako konponbide alternatiboak zuzentzeko moduko akatsak baditu, hilabeteko azken epe bat emanen du zuzenketa egiteko.

3. Toki entitateak artikulua honen 1. idatz-zatian aipatzen diren erabakietako bat jakinarazten ez badu, edo akatsak zuzentzeko errekerimenduei behar bezalako erantzuna eman ezean, bidezkoa

izanen da Toki Inbertsioen Planetik kanpo uzteko espedientea tramitatzea, 16/2008 Foru Legearen 17.4 artikuluan xedatutakoarekin bat.

6. artikulua. Libreki zehaztu beharreko inbertsoei dagokien muga epea.

1. 16/2008 Foru Legearen 5. artikulua araberaren libreki zehaztu beharreko inbertsioei dagozkien ekarpenak ordaintzeko eskatzeko azken eguna 2016ko abenduaren 1a izanen da.

2. Aurreko idatz-zatian ezarritako epean ordaintzeko eskatzen ez diren diru kopuruak diruzaintzako gerakinean sartuko dira.

7. artikulua. Obra jakin batzuen hasiera.

1. 16/2008 Foru legearen 2. eta 3. artikuluetan aipatzen diren obrak, hasi gabe daudenak, foru lege honek indarra hartu eta lau hilabeteko epean hasi beharko dira, baldin eta horien gehieneko ekarpen ekonomikoa foru lege honek indarra hartzen duenean zehazturik badago.

16/2008 Foru Legearen 2. eta 3. artikuluetan jasotzen diren gainerako obrak lau hilabeteko epean hasi beharko dira, ekarpena ezartzen duen ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita kontatuta.

2. Aurreko idatz-zatian aurreikusitakoa ez da aplikatuko plan zuzentzaileetako obretan, partikularren gaineko ukipenak daudenean; obra horiek foru lege honek indarra hartu eta sei hilabeteko epean hasi beharko dira.

3. Obrak aurreko idatz-zatietan ezarritako epeetatik kanpo hasten badira, Toki Inbertsioen Planetik kanpo uzteko espedientea tramitatuko da, 16/2008 Foru legearen 17.4 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, salbu eta salbuespeneko kasu batean, alegia, baimen berezia ematen bazaie, interes publikoaren onerako obrak atzeratzeko arrazoiak daudelako –toki entitateak frogatutakoak–, edo partikularren gaineko ukipenak ekartzen dituztelako, baina betiere inbertsioaren erabilera eta xedea babestuz.

4. Artikulu honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, obren hasierako eguna zuinetaren aktan jasotakoa izanen da.

8. artikulua. Ordainketarako eskaerak, obra hasiera eta amaiera dela eta.

1. Obra hasierako ordainketarako eskaera, 5/2009 Foru Dekretuaren 48.1 artikulua eskatutako dokumentazioarekin batera, hilabeteko epean aurkeztu beharko da, kontratua formalizatu eta biharamunetik kontaktzen hasita.

2. Obra amaierako ordainketarako eskaera, 5/2009 Foru Dekretuaren 48.3 artikulua eskatutako dokumentazioarekin batera, hilabeteko epean aurkeztu beharko da, obrak xede duen erabilera publikorako entregatu daitekeela frogatzen duen harrera akta egin eta biharamunetik kontaktzen hasita, enpresa kontratistaren adostasunik ez badago ere.

3. Obra hasiera edo amaierako ordainketa egiteko eskaerak aurkezteko hilabeteko epea foru lege honek indarra hartzen duen egunetik hasita kontatuko da, kontratuaren egunaren edo obraren harrera aktaren egunaren ondotik bada.

4. Aurreko toki inbertsioen planetan sartutako obren amaierako dokumentazioa osatu eta, kasua bada, zuzendu beharko da hilabeteko epean, foru lege honek indarra hartzen duenetik hasita.

5. Ordainketarako eskaerak Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 70. artikuluan aipatzen diren baldintzak betetzen ez baditu, edo artikulu honetan aipatzen den dokumentazio guztia atxikirik ez badu, toki entitateari eskatu egingen zaio hamar egun balioduneko epean akatsa zuzentzeko edo aginduzko agiriak eransteko.

6. Zuzentzeko errekerimenduari behar den moduan erantzuten ez bazaio, Toki Administrazioen Zuzendaritza Nagusiko Toki Azpiegituren Zerbitzuak egindako obra edo obra zatia ikuskatuko du, aurreikusitako erabilera publikorako erabil daitekeen edo ez zehazteko. Baiezkoan, obraren jabeak eta zuzendaritzak (gutxienez) izenpetutako obra ziurtapenen bidez, bai eta fakturak edo kasuko kopuruak ordaindu izanaren ziurtagiriak aurkeztuz ere, Zerbitzuaren iritziz frogatuta dagoen kostuaren zatiari dagokion zenbatekoa ordaintzea bidezkoa izanen da.

9. artikulua. Gastu konpromisoak.

Proiektuak toki inbertsioen planetik kanpo gelditzen badira, dagozkien gastu konpromisoak ere indarrak gabe geldituko dira.

Xedapen gehigarria. Diruzaintzako gerakinaren xedea.

1. Toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsa osatzen duten baliabide ekonomiko guztiak, kapital transferentzien arloan, aurrekontuetan erabili gabe badaude, edo jatorria ekitaldi itxietako ekonomian badute, diruzaintzako gerakin atxikitzen hartuko dira.

2. Gerakin hori, lehenengo eta behin, foru lege honetan xedatutakoa aplikatuta sortzen diren gastu konpromisoak finantzatzeko erabiliko da.

3. Aurreko idatz-zatian aipatutakoari aplikatu ondoren gerakin horretan gelditzen diren baliabide ekonomikoak etorkizunean toki inbertsioetarako onesten den planaren zuzkidura handitzeko erabiliko dira.

Xedapen indargabetzailea. Indargabetzen diren arauak.

Indarrik gabe gelditu dira foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

F saila:
GALDERAK

Galdera, programa-akordioaren neurrien kostu ekonomikoari buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana Beltrán Villalba andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, programa-akordioaren neurrien kostu ekonomikoari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko urriaren 2ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko urriaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentariaren elkartearen atxikitako foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak galdera egin du, 1272 sarrera-zenbakia eta 9-15/PES-00065 espediente zenbakia dituen, programa-akordioaren zenbait neurrien zenbatespen ekonomikoa, ezinbestean kostu ekonomiko bat daukaten neurriena, hain zuzen, eskatzeko. Hauxe erantzun dio Garapen Ekonomikorako kontseilariak, behean sinatzen duenak:

Programa-akordioan jardun-ildoak ezartzen dira, eta metodologia bat ere bai, urrats hauek dituen: dagoena aztertzea, planifikazioa egitea eta neurriak abiaraztea.

Legegintzaldiko hasiera honetan, oraindik azterketa egiteko eta jardun-ildoak ezartzeko faseetan gaude.

Kontuan hartuta kasuko aurrekontua prestatzeko eta gauzatzeko bete behar dela, besteak beste, Aurrekontuaren Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikotik datorren legedia, neurri horien zenbatespena sortuko da lehentasunei eman beharreko erantzunaren eta finantzaketa aukeren arteko orekatik.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko, jakin dezazun eta behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2015eko urriaren 26an

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, Nafarroako Gobernuak planteatu dituen emergentzia sozialeko neurrien zergatiari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin M.^a Isabel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Gobernuak planteatu dituen emergentzia sozialeko neurrien zergatiari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko urriaren 2ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko urriaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeko M.^a Isabel García Malo parlamentariak idatzizko galdera bat egin du (9-15/PES-00066), Nafarroako Gobernuak, “emergentzia sozialekotzat” jo duen egoera bat zuzentzeko, planteatu dituen “emergentziako” zenbait neurriari buruzko informazioa eskatzeko. Hona Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako lehendakariordearen erantzuna.

a) Zer datutan oinarritzen zarete egoera hori emergentziakoa dela esateko? Eta b) Datu horien iturria:

Lehena.- Etxeetan dagoen egoera –eta bereziki pobreziari dagokiona– neurtzeko bide ofiziala Bizitza Baldintzen Inkesta da. Horretarako bi iturri daude: alde batetik, Estatistikako Institutu Nazionalak (Ekonomia Ministerioa) egiten duena, zeinak Espainiako etxeetatik, oro har, ateratako parametroak erabiltzen dituen, lurraldeen arteko desber-

dintasunak kontuan hartu gabe eta Espainiako biztanleria osoarentzat pobreziaren atalase bakarra erabiliz; eta, beste aldetik, Nafarroako Estatistika Institutuak (Nafarroako Gobernuak) egina, gure erkidegoko egoera bereziari hobeki egokitzen zaiona.

Bi atalase desberdin erabiltzen direnez, pobrezia-tasak ere desberdinak dira, baina horrek eragina du pobreziaren arrisku-tasan bakarrik, eta ez beste adierazle batzuetan, esate baterako, gabezia materialaren edo etxean enplegu maila txikia izatearen adierazleetan. Horrek guztiak AROPE izeneko tasa osatzen du, Europako estatistiketara (EUROSTAT) igortzen dena; eta horri gehitu behar zaio gizarte baten desberdintasun-adierazlea (Gini indizea edo koefizientea), zeinak neurtzen duen ekonomia batean gizabanakoen eta etxeen arteko diru-sarrerren banaketa noraino aldentzen den banaketa erabat ekitatibo batetik (0ko Gini indize batek ekitate osoa adierazten du, eta 100eko indize batek inekitate osoa adierazten du).

Orobat, Nafarroako Estatistika Institutuaren arabera, “pobreziaren atalasea” da kontsumo-unitate bakoitzeko urteko diru-sarrerren medianaren % 60 (OCDE eskala aldatua), pertsonen banaketa hartuta. Nafarroako Estatistika Institutuak egindako azken Bizitza Baldintzen Inkestak azaltzen du kontsumo-unitate bakoitzeko diru-sarrerak kalkulatzeko direla eragiketa hau eginez: etxebizitzako diru-sarrera guztiak zati kontsumo-unitateen kopurua.

Bigarrena.- Nafarroako Estatistika Institutuaren Bizitza Baldintzen Inkestako datuetan honako adierazle hauek ditugu:

Adierazlea	2014	2013	2012
Gizarte-bazterketaren edo pobreziaren arrisku-tasa	14,5	14,5	12,0
Pobreziaren arriskuan	11,9	9,9	7,0
Gabezia material larriarekin	1,2	0,6	4,1
Lanean intentsitate txikia duten etxeetan bizi direnak (0-59 urte bitartekoak)	7,5	8,0	8,0

Unitateak: biztanleriaren portzentajea.

Alegia, Nafarroako biztanleriaren % 14,5 gizarte-bazterketaren edo pobreziaren arriskuan daude; portzentaje hori 2013koa bezalakoa da, eta 2012koa baino larriagoa. Hiru azpi-adierazleetatik bitan gertatzen da larritze hori, eta bakarrik azkenekoak jotzen du hobera, ziur aski 2014an enpleguan izan zen hobekuntza txikiaren ondorioz.

Edonola ere, nabarmendu behar da 7 nafarretik 1 bazterketaren edo pobreziaren arriskuan dagoela, Estatistikako Institutu Nazionalaren arabera.

Hirugarrena.- Kontuan hartzen baditugu Nafarroako Estatistika Institutuak (Nafarroako Gobernu) emandako datuak, egin den azken Bizitza Baldintzen Inkestak adierazten du pobreziaren arrisku-tasa, 2013an Nafarroako etxeetan eskuratutako diru-sarreraren arabera kalkulatu dena, % 22,3 dela Nafarroan.

Tasa horrek erakusten du, hasiera batean, Nafarroako etxeen egoerak okerrera egin duela, aurreko urtekoarekin alderatuta, baina ñabardura batekin: Nafarroako Estatistika Institutuak dio

azken tasa ezin dela alderatu aurreko urteetako tasarekin, lagina zehazteko sistema aldatu delako. Azken ekitaldian hasi zen erabiltzen Nafarroako Foru Komunitateko errolda geoerreferentziatua, 2014. urteari dagokiona. Beraz, aldaketa metodologikoez aurreko urteetako emaitzekiko haustura ekarri dute, eta, beraz, tasa ezin da alderatu beste urteetako tasarekin.

Oraindik ez dugu eskura 2015eko Bizitza Baldintzen Inkesta (2014ko datuei buruzkoa), baina langabeziaren eta pobreziaren arrisku-tasaren artean korrelazio handia dagoela jakinda, adierazle horretan izan den hobekuntza txikiak pentsarazten digu Nafarroan pobreziaren arriskuan dauden etxeak oraindik portzentaje handia direla, % 22 ingurukoa.

Adinaren arabera banaketari begiratzen badiogu, pobreziaren arrisku-tasa handiena 16 urtetik beherakoei dagokie. Ez dago sexuaren arabera alde nabarmenik, baina emakumeen eta gizonen arteko alde handienak adin handieneko taldean, 65 urtetik gorakoan artean, hain zuzen, agertzen dira.

POBREZIAREN ARRISKU-TASA ADINAREN ETA SEXUAREN ARABERA

	Bi sexuak	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Guztira	22,3	22,1	23,5
16 urtetik beherakoak	29,9	29,8	30,0
16 eta 29 urte bitartekoak	27,7	26,9	28,6
30 eta 44 urte bitartekoak	21,9	20,8	23,1
45 eta 64 urte bitartekoak	18,0	17,4	18,5
65 urtekoak eta hortik gorakoak	19,2	14,6	22,7

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua- Estatistikaren Koordinazio eta Zabalkunderako Atala

www.navarra.es/AppsExt/GN.InstitutoEstadistica.Web/informacionestadistica.aspx?R=1&E=3

Unitateak: pertsonen portzentajea

Beste alde batetik, zenbaki absolutuetan eta erroldan oinarrituta, datuen arabera 143.152 pertsona daude pobreziaren arriskuan.

POBREZIAREN ARRISKUAN DAUDENAK ADINAREN ETA SEXUAREN ARABERA

	Bi sexuak	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Guztira	143.152	67.410	75.742
16 urtetik beherakoak	31.731	16.235	15.497
16 eta 29 urte bitartekoak	24.922	12.280	12.642
30 eta 44 urte bitartekoak	33.426	16.394	17.032
45 eta 64 urte bitartekoak	30.405	14.970	15.436
65 urtekoak eta hortik gorakoak	22.668	7.532	15.136

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua- Estatistikaren Koordinazio eta Zabalkunderako Atala

www.navarra.es/AppsExt/GN.InstitutoEstadistica.Web/informacionestadistica.aspx?R=1&E=3

Unitateak: pertsonak

Nafarroako Bizitza Baldintzen Inkestaren bidez 2013ko datu ekonomikoen arabera kalkulatu den Gini indizeari dagokionez, hori 30,42 izan da (2012koa 28,10 izan zen).

Laugarrena.- Horiek horrela, edozein dela ere erabiltzen den iturria, ikusten da Nafarroako biztanleria gizarte-zailtasun handiko egoeran dagoela eta, zalantzarik gabe, hori emergentzia sozialeko egoeratzat jotzen ahal dugula.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko urriaren 23an

Eskubide Sozialetako lehendakariordea: Miguel Laparra Navarro

Galdera, emergentziazko kontusailletara transferentziak egiteko baliatu diren kontusailei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin M.^a Isabel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, emergentziazko kontusailletara transferentziak egiteko baliatu diren kontusailei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko urriaren 2ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko urriaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako M.^a Isabel García Malo parlamentariak idatzizko galdera bat egin du (9-15/PES-00067), Nafarroako Gobernuak, "emergentzia sozialekotzat" jo duen egoera bat zuzentzeko, planteatu dituen "emergentziako" zenbait neurri buruzko informazioa eskatzeko. Hona Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako lehendakariordearen erantzuna.

Honako hau da galdera: Nafarroako Gobernuaren aurrekontuko zer beste kontusailletatik egin da transferentzia bakoitza "emergentziakoak" deritzen kontusailletara? Kontusail horien zenbakia eta izena. Zer departamenturi dagokion kontusail horietako bakoitza. Eskatutako informazioa jarraian zehazten da emergentzia sozialeko kontusail bakoitzeko:

1. Laguntza bereziak: 2 milioi euro

Finantzatzeko kontusaila: 640001 63200 7800 261400 kontusaila, Etxebizitzaren arloko jarduerarako dirulaguntzak eta subsidioak.

Departamentua: Eskubide Sozialak

2. Gazte bermea: 1,03 milioi euro

"170001-15100-4609-241100. Enplegu Plana. Gizarte intereseko zerbitzuak edo obrak kontratazko diru-laguntzak. Sektoriala eta PE EGF-YEI Gazte Enplegua" izeneko kontusailaren xedea da interes orokorreko obra eta zerbitzuak egiteko toki entitateek langabeak kontratatzeari finantzazioa ematea.

Kreditu zati bat gastu proiektu batekin identifikatzen da, Europako Gizarte Funtsaren Gazteentzako Enplegu Programa Operatiboak finantzatzen duen programa bat delako, eta xedea du kontratuak finantzatzea, toki entitateek gazte bermeko sisteman izena emandako gazte langabeekin sinatutakoak.

Gazte bermeko deialdi horren hasierako kreditua 331.086 eurokoa zen. Kontusail hori 623.260,49 euro handituko da. Kontusailean dauden 81.739,51 euro gehituta, deialdia 1.000.000 euroraino handituko da.

Finantzatzeko kontusaila: Kontusaila handitzea planteatzen da beste kontusail batzuetan diren beharrekin batera, honako kontusail hauen bidez finantzatuta:

170000 15000 4819 241115 Enplegu Plana. Giza talde zehatz batzuetan enplegua sustatzeko eta prestakuntzarako programak. PE EGF-YEI Gazte Enplegua

170001 15100 4709 241107 Enplegu Plana. Lan-arloko bizitza eta familia-bizitza bateragarri egiteko neurriak. PE EGF-YEI Gazte Enplegua

170001 15100 4819 241106 Enplegu Plana. Administrazio publikoen eta entitateen kontratazioetarako diru-laguntzak

170002 15200 4819 242100 Enplegu Plana. INAFREkiko hitzarmena, ekimenak eta ekintzak egiteko

640001 63200 7800 261400 kontusaila, Etxebizitzaren arloko jardueretarako dirulaguntzak eta subsidioak

Departamentua: Eskubide Sozialak

3. Babestutako enplegu soziala: 0.6 milioi euro

Finantzatzeko kontusaila: "640003634104609-441100 Iruñerriko garraio publikoarentzako ekarpena"

Departamentua: Garapen Ekonomikoa

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko urriaren 23an

Eskubide Sozialetako lehendakariordea: Miguel Laparra Navarro

Galdera, emergentzia sozialeko kontusailez baliatu diren eta baliatuko diren pertsonen buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin M.^a Isabel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, emergentzia sozialeko kontusailez baliatu diren eta baliatuko diren pertsonen buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko urriaren 2ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko urriaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako M.^a Isabel García Malo parlamentariak galdera bat egin du (9-15/PES-00068), Emergentzia sozialeko kontusailez baliatu diren eta baliatuko diren pertsonen buruzko informazioa eskatzeko. Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako lehendakariordearen erantzuna:

(A) Laguntza bereziei dagokienez:

Aldez aurretik, adierazi behar da neurri horrek ez duela bilatzen, funtsean, "laguntza bereziak" xede dituen kontusaila handitzea, laguntza horiek kudeatu eta esleitzea departamentuaren eskumena den heinean. Ekimen berria da, eta haren bidez sustatu nahi da oinarritzko gizarte zerbitzuen modu eraginkorragoan betetzea dagokien eskualde oinarritzkoan bizi diren pertsonen premia beharrei hasieran erantzuteko eskumena; horregatik

2015ean ez dago inor, aldez aurretik onuradun izaera duenik. Dena dela, departamentuaren eskumeneko laguntza bereziei dagokienez, aurtengo hilabeteotan 4.486 pertsonak (1.413 familia-unitate) atera diete onura aipatu laguntzei.

Bi milioi euroko gehikuntza ez da 900003 91600 4809 231500 "Bizibiderik gabeko familia nafarrentzako laguntzak" kontusailekoa, baizik eta 900003 91600 4609 231502 "Oinarritzko Gizarte Zerbitzuak" izeneko kontusailekoa, eta hautatu den prozedura da diru-laguntzetarako deialdia egitea, norgehiagokaren araubidean, oinarritzko gizarte zerbitzuen titularrak diren toki entitateei zuzendua.

Halaber, adierazi behar da diruz laguntzekoak diren kontzeptuak ez direla laguntza bereziei aplikatzen zaien araudian jasotzen diren berberak (168/1990 Foru Dekretua, ekainaren 28koa, Gizarte Zerbitzuen arloan banakoentzako eta familientzako prestazioak eta laguntzak arautzen dituen; 3422/2005 Ebazpena, abuztuaren 9koa, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana, Gizarteratzearen Atalak ematen dituen laguntza berezien balorazioan eta kontzesioan aplikatu beharreko kontzeptuak, baldintzak, gehieneko zenbatekoak eta prozedura ezartzen dituen).

Laguntzei onura ateratzen ahalko dieten pertsonen kopuruaz aurreikusten den kalkulua 1.500 pertsonatik (470 familia-unitate inguru) 3.000 pertsonara (940 familia-unitate inguru) artekoa da.

(B) Gazte Bermeari dagokionez:

Neurri hori finantzatzen da "170001-15100-4709-241100 Enplegu plana. Gizarte intereseko zerbitzuak edo obrak kontratatzeke diru-laguntzak. Sektoriala eta PE EGF-YEI Gazte Enplegua" kontusailaren kargura, 331.086 euroko hasierako kreditu horren xedea diru-laguntzen deialdi bat zen, toki entitateek gazte bermeko sisteman izena emandako gazte langabeekin sinatutako kontratuak finantzatzeko. Aipatu deialdia irailaren 30ean onetsi zen. Hasierako zenbateko hori ikusita eta diru-laguntzaren zenbatekoa kontuan hartuta, 60 kontratu finantzatzen ahal ziren. Aurrekontuetako kontusailaren gehikuntzari esker, 150etik 160ra arteko kontratu finantzatu dira.

(C) Babestutako enplegu sozialari dagokionez:

2015eko ekitaldirako (martxoko deialdia) 1.800 hilabeteko kontrataziorako diru-laguntza eman zitzaizen 40 toki entitateri (udalak, mankomunitateak), babestutako enplegu sozialeko kontusailaren kargura, hasiera batez 2.200.000 eurokoa baitzen.

Ekitaldia itxi aurretik eta entitateen gastuen justifikazioa eduki baino lehen ezin da jakin programari onura ateratu dioten pertsonen kopuru zehatza, toki entitateek hainbat kontratazio mota erabiltzen dituztelako (lanaldi osoak edo partzialak eta iraupen ezberdinetakoak).

Adibidez: toki entitate bati 30 hilabeteko kontrataziorako diru-laguntza ematen zaio, eta, horren bidez, 5 pertsona kontratatzen ahal ditu lanaldi

osoan 6 hilabeteko edo 10 pertsona lanaldi erdian 6 hilabeteko edo 10 pertsona lanaldi osoan 3 hilabeteko, eta abar.

Programaren deialdia 2015eko martxoan onetsi zen, eta aurrekontu-doikuntza bat egin behar izan zen. Izan ere, araudia aplikatuta ere, proiektu aurkeztu eta onetsien zenbateko osoa 2.612.338,32 eurokoa zen (278 hilabeteko kontratazioa), baina aurrekontuetan 2.200.000 euro baino ez zegoen.

Horregatik, urrian onetsi zen 0,6 milioi euroko aurrekontu gehikuntzaren bidez, Nafarroa osoan 350 hilabete gehigarriko lanaldi osoko kontratazioaren finantzaketa osoa zenbatesten da. Beraz, alde nahikoarekin betetzen dira hasiera batez diru-laguntzarik gabe geratu ziren 278 hilabeteak.

Toki entitateek zer kontratazio egiten duten (lanaldi osokoak, lanaldi erdikoak eta abar), horren arabera izanen da horiei onura ateratzen dioten pertsonen kopurua.

Erreferentzia gisa hartzen baditugu lanaldi oso bat eta hiru hilabeteko iraupena, 2015erako ondorioztatzen ahal dugu kontratazioari onura ateratzen diotenak 116 pertsona inguru direla.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko urriaren 26an

Eskubide Sozialetako lehendakariordea: Miguel Laparra Navarro

Galdera, jakitekoa ea 2015eko hasierako aurrekontuan emergentzia sozialeko kontusailik ba ote zegoen.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin M.^a Isabel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jakitekoa ea 2015eko hasierako aurrekontuan emergentzia sozialeko kontusailik ba ote zegoen. Galdera argitaratu zen 2015eko urriaren 2ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko urriaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako M.^a Isabel García Malo parlamentariak galdera bat egin du (9-15/PES-00069), 2015eko hasierako aurrekontuan "emergentzia sozialekoak" deitutako kontusailak egoteari buruzko informazioa eskatzeko. Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako lehendakariordearen erantzuna:

Honako hau da galdera: Kontusail horiek 2015eko hasierako aurrekontuan ba al zeuden? Kontusail horien zenbakia, izena eta hasierako zenbatekoa. Eskatutako informazioa jarraian zehazten da emergentzia sozialeko kontusail bakoitzeko:

Laguntza bereziak: 2 milioi euro

Kontusaila: Kreditu gehikuntza hori 900003 91600 4609 231500 Oinarrizko gizarte zerbitzuak kontusailean egin da.

Zenbatekoa: Laguntza berezi horietarako hasierako kreditua zero zen.

Gazte bermea: 1,03 milioi euro

Kontusaila: 170001-15100-4609-241100. Enplegu Plana. Gizarte intereseko zerbitzuak edo obrak kontratatzeke diru-laguntzak. Sektoriala eta PE EGF-YEI Gazte Enplegua

Gazte bermerako hasierako zenbatekoa: Gazte bermerako deialdi horren hasierako kreditua 331.086 eurokoa zen. Zenbateko horri erabilgarri dauden 81.739,51 euro gehitu zaizkio. Horrenbestez, 412.825,51 euro daude gazte bermerako, guztira, 2015eko hasierako aurrekontuan agertzen zirenak.

Babestutako enplegu soziala: 0,6 milioi euro

Kontusaila: 900003 91600 4609 231602 Enplegu sozial babestua

Hasierako zenbatekoa: 2.200.000 euro

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko urriaren 26an

Eskubide Sozialetako lehendakariordea: Miguel Laparra Navarro

Galdera, gizarteratze-errentaren erreforma aztertzeko lantaldeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin M.^a Isabel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, gizarteratze-errentaren erreforma aztertzeko lantaldeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko urriaren 2ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko urriaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión el Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari M.^a Isabel García Malo andreak informazioa eskatu du gizarteratze-errenta erreformatzeko analisiak eta azterlanak egiteko lantaldeari buruz (9-15/PES-00070). Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako lehendakariordearen erantzuna:

Egungo gobernuak babesten duten alderdien artean adostutako **programa-akordioan** jasotako konpromisoen artean badago bat gizarteratze-errentari buruzko egungo araudia berraztertzeari eta hura kudeatzeko prozedurei buruzkoa (*Pertsona guztiei gutxieneko diru-sarrerak bermatzea, oinarritzko errenta batezarrita legealdiko lehenengo sei hilabeteetan*). Horrekin bat, departamentu honen legegintzaldi-programaren esparruan, hemendik gutxira gizarteratze-errentaren erregulazioa berrikusteari ekinen diogu, hura eskuratzeko baldintza guztiak aztertuz. Horren bidez, lortu nahi dugu babes soziala zabaltzea; errentaren kudeaketa arintzea; prestazio ekonomiko hori jasotzen duten pertsonen konpromiso gisa hartzen dituzten betebeharrak orokor oinarritzkoak argitzea, eta gizarteratzea bigarren eskubidetzat hartzea. Horrekin guztiarekin gizarteratzeko akordioak balio beharko du prozesu horretan aurrera egiteko eta ez da erabiliko eskubideak murrizteko ez-betezteak dauden kasuetan, eta, azkenean, enplegura bideratuko da, oro har.

Helmuga horretara iristeko, honako **helburu** hauek planteatu dira:

a) Epe laburrean (6 hilabete), 1/2012 Foru Legea berrikusi eta, kasua bada, aldatzea, gizarteratze-errenta eskuratzeko baldintzak eta gizarteratze-prozesua aztertze aldera.

b) Epe luzera (legegintzaldiaren amaierara arte), diru-sarrerak bermatzeko eredua berrikusi eta horren gaineko proposamen bat egitea, metodologia parte-hartzailearekin eta euskarri enpiriko batekin (ebaluazioaren kultura).

c) Kudeaketa-prozedurak berrikusi eta hobetzea, honako hauek abiaburu hartuta: soiltze administratiboa, inplikaturako administrazioen artean zereginak banatzea eta sistema telematiko gokiak erabiltzea.

Honako hau da horri ekiteko modua:

a) Departamentuaren berrantolaketa administratiboa: horretarako, gizarteratze-errentaren eta beste prestazio batzuen kudeaketa –Diru-sarreraren Bermearen eta Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuari esleitua– bereizi da gizarteratze-programa eta -zerbitzuen kudeaketatik –Oinarritzko Laguntzaren eta Gizarteratze-lanaren Zerbitzuari esleitua–. Bi zerbitzu horiek Gizarteratzeko eta Babes Sozialerako Zuzendaritza Nagusian daude. Barneko ikuspuntutik, eta gizarteratze-errentaren kudeaketari dagokionez, prozedurak berrikusteari ekinen zaio; horretarako, barneko hiru lantalde tekniko eratuko dira (a. egungo araudi indarduna interpretatzeko barne-irizpideak; b. prozesuak eta prozedurak; c. informazioa eta komunikazioa).

b) Kanpoko lantaldeak eratzea.

Kanpoko lantalde horiei dagokienez honako hauek planteatzen dira **helburu gisa**: (a) Gizarteratze-errentari buruzko araudiaren aldaketa aztertzea eta, kasua bada, proposatzea; (b) Gizarteratze-errenta izapidetzeko prozedura arin, soildu eta eraginkor bat aztertzea eta, kasua bada, proposatzea; (c) Diru-sarrerak bermatzeko eredua berrikusi eta proposatzea. Honela jokatuko da helburu horiek erdiesteko:

1. Profesionalen eta departamentuaren artean, oinarritzko gizarte zerbitzuen arloko oinarritzko laguntzarako lantalde bat sortzea, eta hiru helburu horiei ekitea. Horri begira, oinarritzko gizarte zerbitzuetako oinarritzko arloaren koordinatzaileei eskatu zaie ordezkariak izenda ditzatela arlo horietako bakoitzerako. Hautapen-irizpidea gizarteratze-errentaren izapidetzearen eta kudeaketaren arloko esperientzia izanen da. Lantaldea datorren 16an bilduko da. Arloetako 8 ordezkari (jada izendatuta daude) eta departamentuko lau teknikari (Diru-

sarrerren Bermearen eta Prestazio Ekonomikoen Atala) osatuta dago.

2. Oinarrizko gizarte zerbitzuetako eta Diru-sarrerren Bermearen eta Prestazio Ekonomikoen Ataleko profesionalen arteko baterako lan saio bat eginen da, b) helburua –gizarteratze-errentaren egungo kudeaketa hobetzea– ardatz hartuta. Horretarako, arloetako koordinatzaileei eskatu zaie gaur egun kudeaketan antzeman diren arazoak identifikatzeko; eskari horri ematen zaizkion erantzunen arabera, lanerako gidoia finkatuko da, eta gero oinarrizko arlokako mintegietan helduko zaio gaiari.

3. Gizarte zibileko erakundeetako profesional edo boluntarioen eta departamentuk langileen arteko lantalde bat sortzea, lehenengo eta azken helburuak lantzeko. Horretarako, Pobreziaren Kontrako Sareari eskatu zaio elkarteko erakundeen artean bost pertsona izendatzeko. Hautapenerako irizpidea izanen da esperientzia izatea ahuldade edo gizarte bazterketako egoeran dauden pertsonen laguntza ematen. Halaber, lantaldean Oinarrizko Errentaren aldeko Plataformako, Caritaseko eta Gurutze Gorriko ordezkari bana egonen dira. Lantaldea, horrenbestez, 12 pertsonak osatuko dute: Pobreziaren Kontrako Sareko bost ordezkari; Oinarrizko Errentaren aldeko Plataformako ordezkari bat, Iruñeko eta Tuterako Elizbarrutiko Caritaseko ordezkari bat, Gurutze Gorriko ordezkari bat

eta Departamentuko lau ordezkari (Diru-sarrerren Bermearen eta Prestazio Ekonomikoen Atala).

4. Aurreko lantaldeen lana jasoko duen lantalde misto bat osatzea, non NUPeko eta Errealitate Sozialaren Behatokiaren Zuzendaritza Nagusiko profesionalak ere egonen diren. Lantalde horrek, nagusiki, a) eta c) helburuak landuko ditu. Ez da hura biltzeko deialdirik eginen aurreko bi lantaldeak beren lanetan hasten diren arte.

5. Gizarteratze-errenta jasotzen dutenekin bi eztabaida-talde sortzea (Iruñean eta Tuteran). Lantaldeen lanekin batera, beste bi lantalde sortuko dira, prestazio sozial horren onuradunen beraien pertzepzioa, beharrianak eta iritziak biltzeko. Bi eztabaida-talde horien ondorioak, orobat, aurreko lerrokadan aipatutako talde mistoari aurkeztuko zaizkio. Aurreikusita dago hori aurtengo azken hiruhilekoan egitea.

6. Halaber, Errealitate Sozialaren Behatokiaren Zerbitzuak aldeztu aurretiko azterlan bat eginen du gizarteratze-errentaren erreformari buruz.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2015eko urriaren 26an

Eskubide Sozialetako Batzordea Miguel Laparra Navarro

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordea berritzeko hauteskundeetarako deialdia.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 22an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

CCOO sindikatuak Nafarroako Parlamentuko hauteskunde sindikalak sustatu ditu, 2016ko apirilean egitekoak, eta behar den aurreabisua egin zaio Nafarroako Foru Komunitateko erregistro-bulego publikoari, bai eta Nafarroako Parlamentuko langileen arloko organo eskudunari.

1991ko martxoaren 21eko Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 33.6 artikuluan ezarritakoarekin bat, bidezko da Nafarroako Parlamentuko Mahaiak hauteskunde-deialdia egitea.

Hori horrela, ERABAKITZEN DUGU:

1. Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordea berritzeko hauteskundeetarako dei egitea. Hauteskunde prozesua erabaki honen eranskinean ezarritako egutegiari jarraituz beteko da.

2. Agintzea erabaki hau eta hauteskundeak sustatzeko idazkia Nafarroako Parlamentuko iragarki-oholean argitara daitezen. Era berean, erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Iruñean, 2016ko otsailaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Eranskina

Hauteskunde prozesuaren egutegia

- Hauteskunde Mahaia eratzea: 2016ko martxoaren 15ean.
- Behin-behineko hautesle-zerrenda erakustea: 2016ko martxoaren 16tik 18ra bitartean.
- Erreklamazioak: 2016ko martxoaren 21era arte.
- Behin betiko hautesle-zerrenda argitaratzea: 2016ko martxoaren 22an.
- Hautagaitzak aurkeztea: 2016ko apirilaren 5era arte.
- Bozketa: 2016ko apirilaren 13tik aurrera (Hauteskunde Mahaiak ezarriko du egun zehatza).